# MAITALE ITUNA

Ortzea urdin zegon,
ta itxasoa ere
goya bezela urdin,
edeŕ eta bare.
Beroni begira,
itun-antzean,
neskatxa bat zegon
aitzen gañean.
Arpegia zeukan
zurbil̄a, eta
begi edeŕ ayek
malkoz bustita;
aren itxureaz
eŕukituta,
urbildu nintzayon
auxe galdezka:
—¿Nola zu, gaxo ori,
ain itun zaude,
ta itxasoa dago
urdin ta bare?
Begi negaŕtuak
nigan jaŕita,
erantzun au eman
ziran zotinka:
—Itxasoak noiz-nai
ituntzen nau ni,
naiz aseŕe ixukoŕ
naiz bare ikusi.
—¿Ta nola bertara
begitzen dezu?
—¡A!, ¡nere biotzak
oŕela nai du!
Ta negaŕ ta negaŕ
esaten zuan:
—¡Ai! ¡Nere maitea
oŕtxe galdu zan!

TENE.